

# EUSKALTZA- INDIA ETA KULTUR MOGIMENDUA

joan mari torrealday



## Euskaltzaindiaren Beroarako Biltzarreraino

*Bide luzea dago Arantzazutik Bergarara* idatzi zuen JAKINEk bere zortzigarren zenbakiko editorialean. Eta jarraian, 1968an Arantzazun Euskaltzaindiak egin zuen Biltzarretik orain Bergaran egin duenerarteko alderik nabarmenenak dira. Are handiagoak dira diferentziak, Euskaltzaindiak 1956an Arantzazun ospaturiko Biltzarretik orain artekoak. Hiru Bilkura horien ingurua ikusiko dugu.

Euskaltzaindiaren hiru bilkura hauek, zinez hiru bilkura inportante bilakatu dira. Hirurak euskal kulturaren historia berriko momenturik inportanteenetan ospatu izan dira: 1956an, kultur mugimenduaren abiapuntuan; 1968an, euskal kulturaren errekupeazioaldian; eta 1978an, euskal kulturaren instituzionaltze atarian.

Gauza bat dager hemen nabarmentki: euskal kultur mugimendu berrian Euskaltzaindiak izan duen presentzia. Harrigarria da, gainerako Hizkuntz-Akademiek izan ohi duten zaharkituaren taiua kontuan edukita. «Jagon» sailak salbatu du Akademia, horrek herritartu du, horrek dinamizatu du, horrek eman dio errealitatearekiko lotura.

Iraileko Biltzarrean ere begien bistan gelditu da Euskaltzaindiak inguruneari, herriari, datuari dion begirunea. Filologoen eta hizkuntzalarien lanaren aurretik beste bat jarri du Euskaltzaindiak: soziologoena. Erabakiak hartu orduko, gertakariak ezagutu nahi ditu Euskaltzaindiak. Horrela, erabakiak ondorio dira eta geroaren bide markatzaile. Bergarako Biltzarrean Estatistika eta Soziologi Batzordearen lanak pisu espezifikoa zuen, geroko bidea seinatu aurretik, Arantzazun 1968an ereindako haziak lurrik hartu ote zuen eta errorik egin ote zuen jakin nahi bait zen.

Euskaltzaindiaren jokabide honek ez du atxakiarik. Idazlearen eta irakaslearen praxiari eta eritziari Euskaltzaindiak erakutsi dion begirunea, benetan azpimarragarria da. Jokamolde honexek eraman du Eus-

kaltzaindia euskal kultur mugimenduan integratzera, euskararen berpiztean eta errekupeazioan, batzutan, partaide eta, beste batzutan, eragile izatera. Kultur mugimendu honi oso loturik ikusten dugu guk Euskal Akadamiaren bizitza ere.

Llabor bada ere, jarraiko lerrotan gure kultur bizitzaren lugarri zenbait ikusiko dugu, eta horien barruan oldearren zein Euskaltzaindiaren ekintzak eta lanak.

## Erresistentziatik herritartzera

Gerraosteko euskal kultur mugimenduaren historian hirualdi ongi berezituak azter ditzakegu. Batez ere azken bietan parte izan du Euskaltzaindiak.

Lehen aldia, gerraoste hurbilekoa da, 1936-1939. urteetan hasi eta 1954-1956. urte ingururarte datorren denboraldia. Irauteak berak lanak zitu. Erresistentzia zen borroka posible bakarra. Gertatuari begiratu, diaspora eta katakunben aldia bezala kontsidera daiteke. Hots, euskal kultur gizonak ihes egin beharra izan du, gerragatik. Desterrura, Ameriketara, ihes egin du askok. Diasporan dago asko. Hori bateko. Eta besteko, hemen gelditu direnak ere, ezkutaturik bezala daude, isilean, gordean eta klandestinitatean langintzan, agerian ezinda. Deus guti produzitu da idazkulturan eta bestela ere Hego Euskal Herrian. Urte horietan produzitu den ia dena, Ipar aldean eta Ameriketara agertu da. Hona egiazko egoeraren ispiua.

Bigarren aldia, 1954-1956., aldean sortzen bide da. Euskal kulturgintzaren erdigunea, Hego Euskal Herrian dator orain. Kultur gertakari asko dugu hau frogatzeko. Hona batzu, adibide gisa: 1954ean, Orixe idazle handia Ameriketatik Lazkaora dator, *Zeuko Argia* berriz hasten da (*Anaitasuna* urte bete aurretik sortu da, 1953an). Eta denen gainetik, hau: *Egan* aldizkaria euskara hutsean hasten da orain. Bada besterik ere.

1956. urtea esanguratsuagoa da oraindik, etorkizunean uzten dituen



markak haintzat harturik. 1956ean *Jakin* aldizkaria sortzen da Arantzazun, *Karmel* aldizkaria Larrean. *Euzko-Gogoa* Guatemalanik Biarritzera dator, Euskaltzaindiaren *Eusker*a aldizkaria berrargitaltzen da. Urte honetantxe, Euskaltzaindiak gerraosteko lehen Biltzarre irekia ospatzen du Arantzazun.

1956ko Kongresu ireki honek badu guretzat interesik, bai gero gertatuko denaren kontrapuntu gisa eta bai jadanik euskararen batasunaren eta modernatzearen arazoak agertzen direlako. 1956ko Biltzarre honen gai nagusia zenbait herritako euskara mota desberdinen azterketa zen. Oso apalki bada ere agertu ziren bi ahots azpimarratu nahi nituzke hemen, geroran izango duten muntagatik eta orduan bertan ere beste giro batzutan (*Jakinen*, esaterako) duten ga-

rarrantziagatik. Norbaitek «euskara bakar baten» premia aldarrikatu zuen. Eta beste egun batez, euskararen modernatzea ere zen, norbaitek teknika-hiztegiaren urgentzia eskatu zuelarik. Bi ahots bakarti.

Bi arazook, alegia, euskararen batasuna eta euskararen modernatzea, urte horietantxe euskal letretan jaiotzen ari zen belaunaldiaren egin-kizun historiko direla esan genezake. Euskaltzaindiaren Biltzarre hartan ez dute oihartzunik. Gazteagoen artean izango dute arrakasta ideioek. Behin eta berriz agertuko dira zeharka nahiz luzezabalean aldizkari orrialdeetan.

Idea hauek emeki hildoa irekiko dute Euskaltzaindiaren barruan ere, eta horregatik ez da etendurarik sortzen Euskaltzaindiaren eta urte horietan sortzen den kultur mugimendu berri honen artean. Horrela esplika daiteke gainerako instituzgo eta joerekin hain sarri kontraesanetan egon eta haustura probokatu duen belaunaldi honek beronek, Euskaltzaindiaren hizkuntz-jokabide eta agintea onartu izatea. Hartu izan dituen jokabiderik gehienetan, belaunaldi honen begirunea bakarrik ez baino laguntza aktiboa ere izan du Euskaltzaindiak. Adibide esan-nahitsu bat: 1959an hitzen jatorriari buruzko printzipioen deklarapena Euskaltzaindiak egin zuenarako, *Jakin*ek Orixeen maisutza utzi eta Euskaltzaindiaren gidaritza onartuko du: «*Euskaltzaindiari: gidari zaitugu. Ortarako jaiio zinan; ortarako sortu zintugun euskaldunok.*»

Hirugarren aldiaren hasiera, 1964 inguruan jar daiteke. Aurreko hamar urtealdian erein ziren egitasmoak erne eta indartu egiten dira orain. Hala politikari nola kulturari. Isileko lana bapatean ezagutzera ematen da, kulturlangile berriak agertzen dira. Literatur arloan ere berrikuntza ugari nabarmentzen da, edukinean zein forman. Arestik *Harri eta Herri* publikatzen du 1964ean, eta hurrengo urtean Txillardegik *Huntaz eta Hartaz*. Euskararen Batasuna Baionako Bilkuran geraezineko martxan jartzen da. *Jaunaren Deia* aldizkaria ateratzen da lehendabizikoz eta *Jakin* berriz, hiru urteko isialdi bortxatuaren ondoren.

Hazaldi berri honen eskutik, urte hauetan jaiotzen den kultur oldea izan daiteke euskal kulturak sekula ezagutu duen loraldirik oparoena. Egiatzko Bizkonde bat, besteak beste. Aldi hau bereizteko kontzeptu bat beharko bagenu, «herritartzearena» erabiliko gunuke. Kulturigintzak, bere osoan, dimentsio soziala du, gizarte hedadura. Aurrerantzean, euskal kulturaren partaideak, egile nahiz laguntzaile, ez dira banaka batzu, ghetto bat, elite zenbait; herriko jendea da, herri osoa nahi litza-teke.

Ikusi besterik ez dago zeintzu diren

egungo euskal kulturaren ezaugarri-rik nabarmenenak. Denak, noski, ditugun urte horietantxe sortuak. Aipa ditzagun batzu, erakuskari gisa.

Kulturigintza honetan, herritarrena *ikastola* da. 1960an hiru ikastola zeuden eta hirurogei ikasle. 1965ean, bost urte beranduago beraz, hamazazpi ikastola Gipuzkoan bakarrik, eta 10 urte geroago ehun eta hirurogei eta sei ikastola eta hogeita hamar mila ikaslelik gora. Gaur berrogei mila ikasle eta gehiago dago ikas-toletan.

Baranduago hasi zen *Alfabetatze* mugimendua. 1967an aurkeztu zitzaion proiektua Euskaltzaindiari. Harrez gero zenbat milaka gazte ez ote dira ikastaldi horietatik igaro. Aurten bertan berrogei milatik gora dabilta euskara ikasten eta euskara aberasten Euskalduntze eta Alfabetatze oldeetan.

Euskal kulturaren bizitasuna eta herrikoitasuna euskal *kanta berrian* ere nabari da. 1961ean hasi zen kanta mota hau, Ipar Euskal Herrian, Labeguerirekin. Gerora, ez dago Euskal Herrian plazarik, frontoirik eta aretorik kantaldiren bat ezagutu ez duenik. Ukaezineko arrakasta izan du euskal kantariak, zein, kitarra esku-tan, bertsolari moderno gisa, herriz herri ibili da. Kantariaren produkzioaren parterik tipiena agertu da diskatan: 200 bat single eta 50etik gora LP.

Liburugintzak ere aurrerapen handia du. 1960 aurretik aldizkariaren inguruan egin izan den lanak gorputz hartzen du orain, finkatu egiten da. Editorialak sortzen dira. Argitaletxerik gehienak, 1960etik gerora agertuak dira, hala nola: Auspoa (1961), Goiztiri (1963), Txertoa (1967), La Gran Enciclopedia Vasca (1967), Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), *Jakin* (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973), Kardaberaz (1974), Kriselu (1975), L. Zugaza (1976). Hauen ondorioz, euskal liburuaren produkzioak gorakada nabarmena egiten du: 1960eko 22 liburuak 154 dira 1975ean.

1964etik hasita, urte hauetan denetan, hizkuntza inguruko arazorik larriena, euskararen batasuna izan da. Hizkuntzaren normalizapenaren eta batasunaren puntu honetantxe egin da kultur mugimendu gazte honen eta Euskaltzaindiaren arteko lotura. Hasi, mugimendu hau Euskaltzaindiaren kanpotik —ez kontra— hasten da indartzen. Idazleen artean. Baionan, 1964ean egin ziren lehen Bilkurak. Dinamika berri bat sortu zen han, zalantzarik gabe. Gerraosteko belaunaldiak osoki ontzat eman zuen batasun bidea. Eta zorionez, Euskaltzaindiari ere ez zion indar bultzagile horrek aldegin. Adi egoteko bi arrazoi bait zituen, eduki ere, Euskaltzaindiak: bat, Euskaltzaindiaren sorrera-asmotan zegoela batasuna; eta bi, arazo horri sentsibilizatuak zeudela aurretik euskaltzainak, F.

Krutwig, Villasante eta... haiten proposamenak eta sa... medio.

Kasua da ezen 1968ko Arantzazu... Euskaltzaindiaren Biltzarre famatu hartan, idazleen guraria bereganatzen jakin zuela Euskaltzaindiak, euskara finkatzearen aldeko ekintzaren gidaritza berak hartu zuela. Erabaki ondoriotsua bilakatu zen huraxe, 1978ko iraileko Euskaltzaindiaren Biltzarrean eman ziren datuetan ikus daitekeenez.

### Bergarako Biltzarraren ondoren

Aldi bat itxi eta berri bat hasi egiten du Euskaltzaindiaren Bergarako Biltzarreak. Epe bat markatzen du.

Lehenengo eta behin, hizkuntza, ortografia aldetik, ia arras finkaturik eta fijatuturik, normalizatuturik gelditzen da. Bergarako berrazterpenaren ondoren, batasunaz Arantzazun emandako arau haien probisionaltasuna amaitu egiten da, Euskaltzaindiak garbi ikusi baitu «Arantzazun eskaintako batasun asmoek eta arauak izan duten baietza eta eragina». Horrela bada, euskara batuaren eredu argi eta garbi gelditu da. «Point de non-retour» batzu jadanik sortu dira.

Bigarrenik, aurrerantzean, euskararen problema bi ardatzen gurpilean mugituko da gehien bat. Bateko, euskara zabatzeko, euskara irakasteko, euskal Herria euskalduntzeko eta alfabetatzeko behar dugun euskara erraz eta oinarrikoa, berehalakoan baliagarri izan behar duen hizkuntza hainbat arinen lortzea. Beste ardatza, hau izango da: euskara teknikoa, euskara-kultur-tresna, euskara modernoa. Euskara modernatzearen egitasmoaren erreibindikapen orokor hark instituzionaldu egin behar du, zientziaren eta jakintzaren alor eta maila guztietan erabili ahal izateko; eta hortarako, sistematikoki landuko duen tratamendu bat behar du.

Oker ez banago, hemendik aurrera, euskara idatziaren batasunari dagozkion istiluak eta eztabaidak itzali egingo dira. Ez dago hor luzaroago denbora galtzerik. Eredu hori onartutzat jo, eta aurrera jarraitu behar da. Premiak dauden tokian egin behar da lan. Eta premiak, beste nonbait daude. Hil ala biziko problema da, gure ustetan, euskara euskaldun guztiaren egunerako hizkuntza egitea. Hil ala biziko problema da, orobat, euskara eskola-hizkuntza egitea, kultur-tresna bilakaraztea.

Hontantxe dago Euskaltzaindiaren lanik berezietako bat. Hauxe daithe gure belaunaldiaren eginkizun historikoa.

### resumen


«Existe un largo camino de Aránzazu a Vergara», escribía JAKIN en el número de su octavo número. Efectivamente, fue la Asamblea que Euskaltzaindiak celebró en Aránzazu en 1968, al Congreso celebrado recientemente en Vergara. Pueden observarse diferencias notables. Estas son aún mayores con respecto a la Asamblea mantenida, también, en Aránzazu, en 1955. Las sesiones citadas han tenido lugar en tres momentos significativos de la historia reciente de la cultura vasca: en 1956, coincidiendo con la puesta en marcha del movimiento cultural; en 1968, en la época de recuperación de la cultura vasca, y en 1978, en el umbral de su institucionalización.

En 1956 —con anterioridad ha vuelto a editarse alguna publicación y nacen otras nuevas— Euskaltzaindia celebra en Aránzazu su primera Asamblea abierta después de la guerra. En ella, alguien preconiza la necesidad de «un único euskara», mientras que otro participante defiende su modernización, la urgencia de un vocabulario técnico. Estas ideas logran abrir una fisura en el seno de Euskaltzaindia, y es así como puede explicarse el hecho de que esta corriente, tan frecuentemente enfrentada a otras instituciones, acepte la autoridad de la Academia de la Lengua Vasca en materia lingüística.

A partir de 1964 nace a las letras una nueva generación (Aresti, Trillardegui...), reflejo de las transformaciones políticas habidas en nuestro país. Comienza el proceso de unificación del euskara, surgen y se van consolidando las ikastolas y un buen número de editoriales. Puede afirmarse que esta generación constituye la floración más relevante que ha conocido hasta entonces la cultura en euskara. Desde 1964 hasta nuestros días, la principal preocupación de todos estos años en lo referente al idioma ha sido la unificación del euskera. Euskaltzaindia supo asimilar el interés de los escritores en este sentido, y fue ella quien tomó la dirección en la labor de fijación de la lengua vasca.

El Congreso de Vergara cierra una etapa y da comienzo a otra nueva. En primer lugar, el idioma vasco queda fijado en lo que a la cuestión ortográfica se refiere; al mismo tiempo, se pone fin a la provisionalidad de las normas adoptadas en Aránzazu con relación a la unificación. En segundo lugar, se pretende conseguir, lo antes posible, un euskara sencillo y básico para su mejor difusión y enseñanza, y, a la vez, su modernización y afianzamiento como vehículo cultural.

Interior de la basílica de Aránzazu.



### summary

The recent history of Basque culture has known three significant moments coinciding with the same amount of Assemblies of Euskaltzaindia. In 1956 the culture movement was started; 1968 is the era of recovery of Basque culture and 1978 represents the threshold of its institutionalization.

The last Congress of Vergara closes a phase and marks another new one. The Basque language is focused on what is referred to as the orthographic question; an end has come to the temporariness of the norms about unification. At last a simple and basic Basque language is trying to be obtained for its better diffusion and instruction and its modernization and support as a cultural vehicle.